



Nafarroako konkista

Historialarien lorratzari segika

Prosper Boissonnade
José Yanguas y Miranda
Arturo Campion
Víctor Pradera
Miguel de Orreaga
José María Lacarra
Florencio Idoate
María Puy Huici
Alfredo Floristán
Manex Goihenetxe
Pedro Esarte
Álvaro Adot
Mercedes Galán
Peio Monteano



Bostehun urte, hamalau historialari, konkista bat

Uztailean bostehun urte beteko dira Albako dukearen tropek Sakanako pasabidetik barrena Nafarroako erreinuaren inbasioa hasi zutela. Hainbat urtetan erasoak, kontraerasoak, negoziaketak, estrategiak, errepresioa, erresistentzia, traizioak, amarrua eta balentriak ekarri zituen konkistak, eta ondorio politiko bat: Nafarroak independentzia galdu zuen.

Hastapeneko kronista ofizial gaztelarrek, Correa eta Nebrija gisakoek, konkista justifikatu zuten; zorrotz bete zuten agindu zitzaizen mandatura. Nafarroako erreinuko kronistek, Moret edo Alesón modukoek, paktismoaren teoriak zabaldu zituzten. Arnaut Oihenartek ere *Notitia Utriusque Vasconiae* lanean ematen du bere iritzia, bidegabekeria salatuz. Garaian garaiko prismatikoeekin egindako lanak dira, garaian garaiko interesen zerbitzura osatuak.

Aitzitik, duela mende eta erdi historiologiak tokitxo bat eskatu zuen zientzia erlatiboan etxean, eta orduan hasi ziren ikerleak konkista hartan gertatutakoaren egiak bilatzen.

■ Egilea: Urko Apaolaza

Azaleko argazkia: Pirineos3000.com · **Azala:** Garbine Ubeda Goikoetxea · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Xabier Letona. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45 **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.324. zenbakiarekin banatua, 2012ko maiatzaren 27an)



Amaiurko gazteluaren arrastoak duela gutxi azalerazi dituzte. Inguruan, 1922an jasotako monolitoa dago, han borrokatu zuten agramontarren omenez egina. Monolitoaren eraikuntzak eztabaida bizia sortu zuen historialari euskaltzaleen eta espainiartzaleen artean.

Prosper Boissonnadek Nafarroako konkistari buruzko bere obra idatzi zuenean, XIX. mendean, aro berri bat ireki zuen historiografian, 1512ko hura ulertarazteko. Historia disziplina moduan orduantxe ari zen zabaltzen Europan, eta ordudanik makina bat lan publikatu dira Nafarroako konkistaren inguruan historialari “profesionalek” eginak. Jakina, bakoitzak bere ildo politikoak, ideiak eta tesiak alboratu gabe. Nafarrek konkista ondorengo estatusa onartu al zuten? Aita Santuaren buldak egiazkoak eta justifikagarriak al ziren? Nafarroa, Erdi Aroan ala

Modernitatean zegoen konkistaren unean? Bea-
mondarrek bat egin al zuten Fernando Katoli-
koarekin? Zein izan zen Joanes Albretekoaren
eta Katalina Foixkoaren jarrera? Galdera ho-
rien eta gehiagoren inguruko eztabaida beti
egon da bizirik korrante historiografiko ezber-
dinen artean.

LARRUN honetan, esanguratsuak
iruditu zaizkigun hamalau egileren
ekarpena eta testuak bildu ditugu,
Boissonnadetik hasi eta gaurdaino.



PROSPER BOISSONNADE (1862-1935)

«Denak zirudien galera konponezin horretara bideraturik»

1893an Nafarroako konkistari buruzko doktoresia publikatu zuenean, ez luke usteko Prosper Marie Boissonnade okzitaniarrak, lan hura egun oraindik ere erreferentzia nagusietakoa izango zenik historialarien artean. Poitierseko unibertsitateko irakasle izan zen eta 1891n diru-saria eman zioten Espainiako Erdi Aroko historia ikertzeko. Nafarroako gaiari heldu zion, Pirinioetako gaztetako aireak deiturik nonbait –Réquista herritxoan jaio zen, egungo Midi-Pyrénées departamentuan–.

Histoire de la réunion de la Navarre à la Castille idazteko Simancaseko eta Nafarroako artxiboetan jardun zuen eta lehen eskuko iturrien bidez historia orekatua osatu zuen, Frantzia bogan zegoen positibismoari jarraiki. Ekonomista ere bazen, eta ondorioz arlo soziala ez zuen deskuidatu. Bere laneko hainbat hipotesi zaharkituta geratu dira, baina hargatik ez du baliarik galdu. Bere ekarpen nagusia? Nafarroako konkista Europako testuinguru politikoari guztiz lotua zegoela azpimarratzea. Askoren ustez hau da Nafarroako konkistari buruzko obra akademiko fundazionala.

1956an Ekin argitaletxeak gaztelaniazko edizioa publikatu zuen Buenos Airesen. Tomas Yoldik itzuli zuen lana, antza Arturo Campionen aginduz. 1981ean Mintzoa argitaletxeak berrargitaratu egin zuen itzulpena. Batak zein besteak al daketa nabarmenak dituzte originalari erreparatuz

gero. 2005ean Principe de Viana Institutuak gaztelaniazko itzulpen berria kaleratu zuen. Segidako testua 1975ean Genevan argitaraturiko faksimiletik itzulia da euskarara. Obra osoa Bibliothèque Nationale de France-ren Gallica liburutegi numerikoan kontsultatu liteke, honako helbidean: <http://bit.ly/ILATtf>.



Boissonnadek obra fundazionala idatzi zuen.

“Fernando prest zegoen jokorako. Inoiz baino gehiago, erabakia zuen Nafarroa mantentzea, estatu arrazoiak agintzen zion, eta pentsatzen zuen bazuela nahikoa eskubide usurpaziorako. (...)”

Pirinioetako erreinu txikiaren desagertzea, aspaldi handi izandakoa, garai modernoan hasieran Europan izandako aldaketen ondorio saihetsezina izan zen. (...) Europako bi potentzia handien arteko gatazkagatik bere independentzia mehatxaturik zuen Nafarroaren erregeek, ezin izan zuten arriskua desbideratu. (...) Denak zirudien galera konponezin horretara bideraturik; Egoitza Santuak, espainiar anbizioen zerbitzari adeitsuak, eskumiku sententzia batez babestu zuen espoliazioa. (...) Nafarroa garaitzaileen eskuetan geratu zen betirako. Eta erraz onartu zuen bere patua. Al-derdiek bananduriko erreinu honetan¹, anarkiak hondatua, aberriaren ideia ez zen existitzen oraindik; Foix-Albret dinastiak ez zuen denborarik izan sakon errotzeko. Nafarrak, batez ere euren tokiko askatasunetara loturik, euren berezko pribilegioetara, erresistentzia labur baten ondoren indartsuenaren legearen menpe jarri ziren.”

1- Beaumontar eta agramontar leinuez ari da, eta XV. mendean euren artean izan ziren liskarrez.

JOSÉ YANGUAS Y MIRANDA (1782-1863)

«Nafarroa ere guztiz espainiar egin zen, Nafarroa izateari utzi gabe»

José Yanguas y Miranda tuterarrak 1830ean lortu zuen Nafarroako artxibozain kargua. Hamar urtez esku-eskura izan zituen paleografian eta historian sakontzeko dokumentuak. Gero politikagintzan murgildu zen erabat, eta Nafarroako historiari argitaratutako lan haiek 1841eko foru-erreformaren eztabaidan aritzeko baliagarri izan zitzaizkion. Yanguas y Miranda liberala zen oso – absolutismoak kartzelan sartu zuen 1823an aldi batez – eta Nafarroako foru izaera defendatu zuen arren, Gorteen sistema konstituzionalismo berrira “egokitu” behar zela uste zuen, hau da, erreinu izateari utzi behar zion, probintzia bilakatuta.

Yanguas y Miranda Nafarroako liberal foruzaleen intelektual nagusia zen eta konkistaren inguruko bere diskurtsoak lorratz nabarmena utzi zuen. Aita Santuak nafar erregeak eskumikatu zituela gezurra da bere ustez. Hortaz, ez zen konkista justua izan, “indartsuenaren legez” egin baizik. Fernando Katolikoak baina, foruei zin egin zion, eta “itun” hori da Yanguas y Mirandarentzat urratu ezin zitekeena. Nola, 1841eko ustezko “Lege Hitzartua”, 1512ko itun hartan ispiatzen du Tuterakoak.

Idea horiek guztiak ezin hobeto jaso zituen idazlan batean. 1843an Luis Correak idatziriko kronika famatua berrargitaratu zuen: *Historia de la Conquista del Reino de Navarra por el Duque de Alba*. Correak konkista bertatik bertara ikusi zuen, tropa gaztelarren altzoan. Yanguas y Mirandaren esanetan “Nafarroako konkistaz idatzi den historia

osoena” da. Bada, argitaratzaileak hitzaurre maimitsua gehitu zion Correaken liburuari, konkistari buruzko bere ikuspegia biluztuz. Honako pasarteak hitzaurre horretatik itzuliak dira eta gaztelaniazko testu osoa Nafarroako Gobernuaren webgunean (<http://bit.ly/IVGwAM>) kontsulta liteke, besteak beste.



“Gaztelako erregeek Nafarroan zuten nagusitasuna finkatzen gehien lagundu zuena Katolikoaren jokabidea izan zen, sakoneko politikarekin, nafarren jitera sartzea lortu zuela baitirudi, eta euren espiritu gerlari eta menderakaitza moldatzeko modua aurkitu zuen: Albako dukearekin kapitulatutakoaren arabera², foruak gordetzea zin egin bakarrik ez, Nafarroa bananduriko erreinu gisan edu-

kiko zuela ere agindu zion, Gaztelara gehitu arren: fidela izan zen bere tratatuak betetzen eta konkistaren ondoren eskuzabala izan zen etsaiekin eta zinausleekin, eta horrela, antzinako independentzia nazionala ahazteko gogoari bidea ireki zion. Eta nafarren harrotasun jatorrak behin eta berriz horren alde egiten bazuen ere, lau urte geroago Fernando Katolikoaren oinordeko izan zen Karlos V.aren botere kolosalak, eutsi egin zion, bere aitonaren politika imitatuz. Hortaz, nafarrek euren dinastia legitimoa ahaztu eta alboratu egin zuten betiko, areago Joana Albretekoa, Enrikeren alaba eta Joanes erregearen biloba, protestante egin zenetik: orduan, Nafarroa ere guztiz espainiar egin zen, Nafarroa izateari utzi gabe; eta Penintsulako espiritu erlijioso eta nazionalari atxikia jarraitu du etengabe, monarkiaren barruko parte baino, aliatu bezala”.

2- Iruñeko kapitulazioa 1512ko uztailaren 29an sinatu zuten Nafarroako erregeen ordezkariak eta Albako dukeak –hiriburua gaztelarrek hartua izan zen egun batzuk lehenago–. Akordioaren arabera, besteak beste, Amaiur eta Donibane Garaziko gotorlekuak Fernando Katolikoaren esku geratuko ziren, eta honek, okupazio militarra geraraziko zuen.

ARTURO CAMPION (1854-1937)

«Kontzientzia ondraduen aurrean, buldek ez dute konkista justifikatzen»

Arturo Campionen obra erraldoian Nafarroako konkistak leku mugarrira dauka. Bizitza politikoan biziki parte hartu zuen iruinsemeak, foruen eta euskaltasunaren defentsan aritzea egokitu zitzaion, eta bere historia ikerlanetan politikaren eragina disimulurik gabe sumatzen da. Akaso horregatik, batzuk saiatu dira bere ikerketa desprestigiatzen. Maria Puy Huici Goñik zioen Arturo Campion literato ona zela, baina ez zela historialaria, ez zuela konkista oinarri sendo eta egiazkoekin kondanatu. Ikuspegi kamuts hori erabat desmuntatzen da Campionen lana aztertuz gero. Emilio Majuelok berrikitan bere obra historikoa landu du *La idea de Historia en Arturo Campion* saiakeran (Eusko Ikaskuntza, 2012). Bertan dio Campionek ikerlanak metodologikoki lantzen zituela eta bere ideiak “odolez eta suz” markaturik zeramatzan arren, horrek ez ziola eragotzi Europar zabaltzen ari zen “diziplina historikoaren profesionalizazioan” parte hartzea.



Gertatzen dena da, Campionen ultraaktibitate publikoak eta izan zituen eztabaidek itzal egin ziotela bere ikerketari. Nafarroako konkistari loturik polemika sonatuena Víctor Praderarekin izan zuen 1920ko hamarkadaren hasieran. Amaiurren monolitoa eraiki nahi zuten lauhun urte lehenagoko “azken erorien” oroimenez. Víctor Praderaren eta Arturo Campionen inguruan sektore bana bereizi zen, ideia kontrajarriekin. Praderak zioenez Nafarroaren konkista erabat justifikatua zegoen eta “abertzaletasunak alderdi traidorea loriatu” nahi zuen monumentu horrekin; “antinafar” deitu zituen Campion eta enparauak. Campionek abiltasun ikaragarria zuen dialektikarako eta erantzunean ez zen motz geratu; *Mas reflexiones sobre la bula ‘exigit’ y más pormenores sobre la Conquista de Nabarra* artikuluan honakoa bota zuen:

“Nire jarrerak harrotasunez estaltzen nau. Koraza honetan irrist egiten dute, nire irmotasunzuntza zauritu gabe, dardorik krudelenek: herrikide desnaturalizatuen buiraketatik irteten direnak”.

Amaiurko polemikaren garaian konkistari buruzko hainbat artikulua idatzi zituen Campionek. Majueloren esanetan horiek probestu zituen aspalditik esku artean zebilkien *Euskariana* serieko bederatzigarren liburuaren berrargitalpena osatzeko: *Nabarra en su vida histórica* (Euskal-Erriaren Alde, 1929). Bertan, konkistaren inguruko makina bat informazio publikatu zuen. Nafar erresumaren “arimaren” bilaketan saiatu zen bizitza osoan gure poligrafoa eta liburuan garbi adierazten du konkistarekin ez zela dinastia aldaketa soil bat gertatu, nafar arimaren “despertsonalizazioa” baizik. Liburua 1971n berrargitaratu zuen Manuel Irujok erbestean, eta aurtan Txalaparta argitaletxeak argitaratu du berriz ere, Campionen obrak iraungitze-datarik ez baitu.

Euskaroen aitapontekoa, Joxemiel Bidador zenak behin esan zuenez: “Euskalerritasun historiko eta literarioaren ikurra bihurtu zen bere bizitzan eta bere produkzio historikoa, zentzu zabalean, horren isla dugu”. Campionen pentsakerak oinarria ipini zuen Aranaren abertzaletasunetik kanpoko euskaltzaleentzat, baita konkistari dagokionez ere. Harrigarria da gaur egun oraindik zein gutxi ikertu den pertsonaia hau sektore ideologiko zehatz horretan.

Bulda horiek³ oso eraginkorrak izan ziren Nafarroako erregeei euren koroa harrapatzeko; baina kontzientzia ondraduen aurrean, buldek ez dute ekin-tza hori justifikatzen. On Fernandoren politikaren



eta bere pertsonaren oso zaleak diren historialari espainolek ikusarazi dute zein epai gogorra merezi zuen lapurreria aragoarrak. (...)

Zuzenbide estatuari kasu eginez, Gaztelara gehitzea, dinastia aldaketa hutsa balitz bezala



JAVIER CIGA / NAFARROAKO MUSEOA

Euskaroen aitapontekoak iraungitze-datarik gabeko lana idatzi zuen *Euskariana* seriean. Nafar arimaren "despertsonalizazioa" salatu zuen.

hartu zitekeen lehen garaietan, gauzen funtsa aldatzen ez duen koroaren usurpazio moduan; baina horrekin, Nafarroak bere nazioarteko pertsonaltate publikoa galdu zuen eta nazio kategoria menpekora jaitsi zen, nazioarteko zuzenbide pribatuaren barruan baino ezin zitekeen mugitu jadanik. (...)

Nafarroak egunero euskaldun⁴ izateari uzten dio, gero eta gehiago, eta nafar izateari ere bai. Gainbeheraren legea bikoitza da: batek eduki euskalduna husten du; besteak, eduki nafarra; azkeneko lege honek besteak baino mantsoago dihardu".

3- *Pastor Ille Caelestis* bulda 1512ko uztailaren 21ean sinatu zuen Julio II.ak; Frantziako erregeak eta hauen lagunak eskumikatu zituen zismatiko izateagatik. Fernando Katolikoak baina, ez zuen buldaren edukia abuztuaren 5a arte jakin, Nafarroako okupazioa hasita zela. *Exigit Contumacium* bulda 1513ko otsailaren 18an sinatu zuen ustez Aita Santuak –hil baino hiru egun lehenago–, bertan nafar erregeak eskumikatzen ditu. Historialari gehienek ustetan bulda Fernando II.ak faltsutu zuen konkista legitimatzeko; Elizak ere ez zuen bere egin bulda hori.

4- Jatorriko testuan *basko* hitza erabiltzen du, eta Nafarroa esateko *Nabarra* hitza.

VÍCTOR PRADERA (1873-1936)

«Nafarroago izango zara Espainiari lotuago zaudeno»

Praderak ingeniari eta abokatu ikasketak egin zituen, baina politikan barneratu zen erabat. Vázquez de Mellaren karlismotik abiatuta, faxista kutsuko tradizionalismora iritsi zen, eta Nafarroako espainiartasuna defendatzen sutsuena izan zen bere garaian. Baina Pradera, batez ere, anti-abertzalea zen. 1921eko urtarrilaren 6an Iruñeko Centro Católico Español-en agramontarrek Nafarroari eta Espainiari traizio egin ziotela esan zuen. Ekaitza sortu zuten hitz horiek, abertzaleen erantzuna (Campion, Aranzadi, Oloriz, Baleztena...) berehalakoa izan baitzen.

Polemika horren ondorioz idatzi zuen bere lan ezagunena: *Fernando el Católico y los falsarios de la Historia*, 1922an argitaratua eta Historiaren Akademiak saritua. Duro batean saltzen zen *best seller*-a. Bertan, Pradera saiatzzen da konkista justifikatzen, Aita Santuak nafar erregeen kontra idatzitako *Exigit Contumacium* bulda egiazkoa zela esanez. Bulda horretan Juan II.ak Joanes Albretekoa eta Katalina Foixkoa eskumikatu omen zituen eta Fernando Katolikoak konkistarako baliatu zuen hori. Praderak Espainiaren batasuna aldarrikatzea zuen helburu.

Garai istilutsuak bizitzea tokatu zitzaion historialari polemikoari. II. Errepublikan euskal Estatutuaren kontra aritu zen muturka, Jimeno Ju-

riok zioenez lan gotorra egin zuen, amarrua ere erabiliz, “bere sentimendu espainolistenek” eraginda. 1936a iritsi zenean bukatu zitzaizkion teklak, gerra zibila hastearekin anarkistek hil baitzuten.



Praderak Aita Santuaren buldak defendatu zituen *Falsarios* liburuan.

Gerra bukatuta, errejimen frankistak tituluak eman eta omenaldiak egin zizkion hildakoari. *Falsarios* liburua Frankismoan erreferentzia izan zen, baina ez da 2003 arte berargitaratu. Segidako testua jatorriko lanetik hautaturik dago; lan osoa kontsultatzeko aukera dago Interneten, Gipuzkoako Foru Aldundiko biltegi digitalean edo honako helbidean: <http://bit.ly/JHJvPg>

“Nafarroako erregeek, beraz, eze-lango justifikazio eta aitzakiarik gabe, haiek tronutik kentzea zazpi bider eragotzi zuen Fernando Katolikoarengana eskergabetasun osoz, gerra egoeran jarri ziren boluntarioki eta libreki

Errege Katolikoaren kontra, edo, bere hitzetan, ‘Frantziako Erregearekin liga bat egin zuten, ez bakarrik enpresa hura (Guienako inbasioa)⁵ saihesteko, baita Espainiari ahalik eta min gehien egiteko ere’. Eta egoera horretan ezin izan zieten gerraren legeei izkin egin; hau da, inbasioa eta konkista. (...)

Nafarroa⁶ maitea: hausnartu, adi, azken hitz hauek... Zure belarrietara historiaren gezurtiek esaten dutenaren kontrara, historiak dio Nafarroago izango zarela Espainiari batuago zaudeno”.

5- Guiena Okzitaniako lurralde historikoa zen, mendebaldean eta itsasoarekin mugan. Ingalaterrako erregearen esku egon zen denbora luzez, harik eta 1469an behin betiko Frantziako erregearen menpe geratu zen arte.

6- Jatorrizko testuan *Navarra* hitza erabiltzen du beti Praderak.

MIGUEL DE ORREAGA (1903-1927)

«Historia tristea 1512ko negoziazio haiena!»

Miguel de Orreagak, edo hobeki esanda Pedro Navascuesek –horixe baita pseudonimoaren atzeko benetako egilearen izena– bizitza laburra izanagatik ikerlan garrantzitsuak utzi zituen. Iruñean jaio zen, Tuteran errotu, eta laster edan zuen abertzaletasunetik, horrek ikasketak burutzeko arazoak ekarri zizkion arren. *Amayur. Los últimos nabarros* da bere lan gailurra. 1923an argitaratu zuen, euskaroak Víctor Praderarekin eta *Diario de Navarra* egunkariaren inguruan biltzen zirenekin eztabaida sutsuan zeudenean Amaiurren egindako monumentua zela-eta. Navascuesek 19 urte beterik ez zituen, eta Campionen esanetan –liburuaren hitzaurrea berak idatzi zuen– Amaiurren gertatutakoaz ikerlan zabalagoa egin nahi zuen arren, azkenean herritar xumearentzako ulergarria izango zen sintesi bat aurreratu zuen, eztabaidan mailu-kolpea jotzeko. Baita ederki jo ere.

Dena den, zorroztasuna dario Navascuesen *Amayur*-i eta seinale da dokumentazio argitaragabea izan zuela esku artean. Hara zer idatzi zion behin Nafarroako Diputazioko artxibozainari: “Badakizu dibulgaziozkoak izanagatik ere, lan hauek dokumentatu egin behar direla; Praderaren okerreiei egia kontrajarri behar diegu, eta frogatu, ez baita nahikoa baieztapenak egitea”. Lastima hain goizik hil zela, 24 urterekin tuberkulosiak eraman zuen.



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Napar askatasunaren alde Amayurko echarrian borroka egin zuten gizonai. Betiko argia. 1522. Amaiurko monolitoko leloa.

“Ni ez naiz Nafarroako azken erregeen jarreraren panegirista; soilik diot, haiek, kinkan zeuden Frantziako euren Estatuak⁷ mantendu nahian, eta agian aurreiritzi galiarrak buruan sartuta zituztela, Egoitza Santuaren etsai batekin aliatu zirela esandako baldintzetan, baina geroago ikusiko dugun bezala, beti aldarrikatu zuten Elizarekiko euren maitasuna, Julio II.a Aita Santua aitortu zuten, eta ez zuten Pisako kontziliabulu⁸ zismatikoan parte hartu nahi izan. Nirekin daude idazle nafar guztiak, sekularrak, erlijiosoak, eta atzerritar asko ere bai. (...)”

Historia tristea Nafarroarentzat 1512 urteko negoziazio haiena! Erreinua eskrupulu gutxi eta botere askoko bi etsai horien erdian kokaturik, haien arteko desadostasunetan parte hartu zuen. Monarka nafarrek nahi izan zuten biekin neutral mantendu, baina Gaztelak eskatzen zuen Erreinitik pasaleku bat, eta Frantziak nafarrek ingelesei gerra deklaratzeara. On Joanes Albretekoak bigarren nazioarekin egin zuen ituna⁹, eta On Fernando bere Estatuaren gainera jaurti zen”.

7- Biarno, Bigorra, Foix, Albret, Marsan, Armagnac, Limoges, Périgord, Rodez, Alençon... Horietako konderri eta dukerri batzuen gaineko kontrola ez zen erabatekoa, konpartitua baizik.

8- Pisako kontzilioa 1511n antolatu zuen Luis XII.a Frantziakoak Julio II.a Aita Santuaren kontra egiteko. Honek “kontziabulu” mailan jarri zuen batzar hura eta baliogabetu egin zuen.

9- Blois-eko itunaz ari da, Nafarroako erregeek Luis XII.aren 1512ko uztailaren 18an sinatua. Bertan, besteak beste, *lagunen lagun eta etsaien etsai* printzipioa onartu zuten.

JOSÉ MARÍA LACARRA (1907-1987)

«Nafarroako erregeak Frantzia eta Espainia artean kulunkatuko dira»

Jose Mari Lacarra XX. mendeko Nafarroako historialari esanguratsuenetakoa du. Erdi Aroko Historiako katedra lortu zuen Zaragozan 1940an, eta bertan egin zuen lan hil arte. Erdiarolaria zen eta Nafarroako konkistaren garaia bazterretik ikertu zuen *Historia política del reino de Navarra* ize-neko bildumaren barruan. Nafarroako Aurrezki Kutxak agindu zion lan hori egitea 1973an. Hirugarren liburukian azaltzen ditu konkistari buruzkoak. Lacarrak kronika klasikoetako hainbat topiko errepikatzen ditu; era berean, errege nafarrek konkista aurreko urteetan Espainiako eta Frantziako monarkiekin landu behar izan zuten diplomazia irristakorra deskribatzeko hitza asmatu zuen: *politica de balancín*, euskaraz politika “kulunkaria” gisan itzul dezakeguna.

“Hiru urtez joko diplomatiko bizia eramango da aurrera potentzia handien artean –Fernando, Aita Santua, Maximiliano, Luis XII.a eta Ingalaterra–, eta Nafarroako erregeak Frantzia eta Espainia artean kulunkatuko dira, inbasio eta banaketa arriskuak saihestuz. Bai Luis XII.ak eta baita Fernando Katolikoak ere, laguntasun gutxiko jarrera izango dute, baina euren artean izango duten mesfidantza horrek erreinuaren independentzia salbatuko du. (...)

Hainbeste lan eginda mantendutako independentzia bi hilabeteko epe laburrean galduko da –1512ko ekainetik uztaile–; Luis XII.aren eta Fernando Katolikoaren arteko harremanak gogortuko dira Italiako gerren ondorioz¹⁰. Nafarroako erregeak, beste behin ahalegindu ziren gatazkatik aldentzen, auzokoaren kontra jo zezakeen inongo aliantza eta ligatan sartu gabe. Beste unetan be-



Lacarraren esanetan Nafarroako erreinuaren “enpresak zailtasun handiak zituen diplomatiko zailduenarentzat”. Irudian, 1642ko mapa.

zala, espero zuten Frantziarekin eta Espainiarekin aldi berean negoziatuz euren domeinuen batasuna salbatuko zutela. Enpresak zailtasun handiak zituen diplomatiko zailduenarentzat ere, eta Joanes eta Katalina erregeek ez zuten erakutsi halakorik zirenik. (...)

Beraz, Errege Katolikoak nafarrak entretenitu zituen antzinako aliantzak berrituko zirela faltsuki segurtatuz, eta Frantziarekin bakea egin zezatela gomendatu zien, azken momentuan segurtasun onartezinak exigituz; aldi berean, Erroman buldak negoziatu eta muga indarrak bildu zituen. Ekainaren 13an Albako dukearen tropak Gasteiz inguruetara iritsi ziren, eta Nafarroan ez zen inolako defentsa neurririk hartu”.

10- XVI. mendearen lehen erdialdean Italiako lurraldeetan jarraian izandako hainbat gerra. Europako potentzia nagusienak egon ziren nahasita eta nazioarteko politika erabat baldintzatu zuten.

FLORENCIO IDOATE (1912-2001)

«Erregeordez erregeorde, konfiantza faltak iraun zuen»

Florencio Idoate 1966tik 1982ra arte Nafarroako Artxibategi Nagusiko zuzendari izan zen. Datu hori jakitea ezinbestekoa da bere obraren dimentsioa ulertzeko. Paper artean igaro zuen bizitza osoa, orain katalogoak prestatzen, orain tokiko historiari buruzko artikulua idazten. Berrogeitaka liburu idatzi zituen, Erdi Arotik Aro Garaikiderainoko gaiak landuz, eta bere ideia asko *El Pensamiento Navarro* egunkari karlistan ezagutarazi zituen.

Konkistari dagokionez hipotesi ofizialarekin bat egiten zuen; baina bere idatzietan ofizialtasun horri ñabardura asko egin zizkion, batez ere datu zehatzen bidez. 1981ean *Esfuerzo bélico de Navarra en el siglo XVI* liburua idatzi zuen Nafarroako Foru Aldundiaren eskutik, konkistari buruz berak osatutako zabalena. Bertan, konkista ondorengo Espainiako erregeordeek nafarrekiko zuten mesfidantza agerian utzi zuen dokumentuetan aurkituriko informazio mordoarekin. Hau da, nafarrek estatus berria onartu zutenaren teoria ofiziala hankaz gora jarri zuen.

“[Garesko] herritarrak kexu ziren, erregimentuak eta bere buruzagiek tratu bera eskatzen zutelako

eta horren erruz karga osoa euren bizkar jartzen zelako etengabe. Askok iseka egiten zieten, esanez ‘petxeroak¹¹ zirela eta barre eginez’.

NAFARROAKO GOBERNUA



Pedro II.a mariskalaren kriptan aurkituriko harmarria, Nafarroako kateak agerian. Mariskala Joanes III.ari leial mantendu zen, eta erbestean kartzelaratua zela hil zuten.

bilduan ostatu hartzen zutela ‘espainolak’ Nafarroara etorri zirenetik, haietako lekuko batek zioenez. Detaile honek argitzen digu nola espainolak arrotzak izaten segitzen zuten garestarrentzat, baita gainerako nafarrentzat ere. (...)

Nafarrekiko konfiantza falta sistematikoa, kontsultatu ditugun paperen bidez suma daiteke, lur honetan arrotz diren militarrek idatziak. (...)

Mende erdiz gaztelartzen egon eta gero, atzeritarrek Albretarren itzala ikusten zuten oraindik Nafarroan. (...)

Erregeordez erregeorde, ikusten ari gara nola iraun zuen nafarrei ezarritako balizko fideltasun eta konfiantza faltaren zeinuak. (...)

Independentzia beti izango da etsipenez oroitua arrazoi

sentimental eta praktikoengatik, baina zenbait kasutan, urteen joanak herrimin legítimo hori ezabatu du, erreinu independentetik dependenterako igaroaldia ezagutu zuen belaunaldiarena. Dena den, klase noblea, buruzagiak alegia, garai berrira egokitzen saiatzen dira, behin-betikoa izango baita, atzera bueltarik gabekoa, soilik oroitzapena geratuko da”.

11- Zerga pertsonalak (“petxak”) ordaintzen zituztenak; klase pribilegiatuetatik at zeuden herritarrak, bereziki laborariak.

MARÍA PUY HUICI GOÑI (1915-2008)

«Hura justifikatzea, biolentzia defendatzea da»

Maria Puy Huici Goñik, Comptoseko Ganberako ikertzaileak, *En torno a la conquista de Navarra* idatzi zuenerako, 1993an, ospea eta izena zuen Nafarroako historialari eta politikarien artean. Eskola-irakasle lanetik jubilatzeaz zela ekin zion ikerketari. Lehenik *Las Cortes de Navarra durante la Edad Moderna* osatu zuen 1963an. Opuseko unibertsitatean ez zuen arrakasta berezirik izan lan horrek, baina pixkanaka erreferentzia bilakatu zen. Gero, 1980ko hamarkadan Nafarroak erakunde foral batzuk berreskuratu nahi izan zituenean, Comptoseko funtsak ikertzea proposatu zioten Huiciri. Eta halaxe egin zuen hogeitaz.

Bertan ikasitakoak Nafarroako historiaren ikuspegia aldarazi zion Huiciri, tartean konkistaren inguruan zuen pentsaera. Barruko arrak bultzatuta, ordura arteko etorbide *navarrista* utzi eta bestelako xenda malkartsuari heldu zion: 1512ko konkista eta honen ondorioak ikertu eta salatzeaz.

Comptoseko Ganberan aurkituriko informazio pribilegiatuari esker lehen eskutik jakin zuen konkistaren aurreko eta ondorengo urteetan beaumontarrek izandako bilakaeraz, eta *En torno* liburuan erakutsi zuen gaztelarren aldeko jarrera ez zela monolitikoa eta erabatekoa izan, kontrara, beaumontarrak engainaturik sentitu zirela. Bestalde, konkista ondorengo okupazioak eta errepresioak ondorio latzak izan zituela ere idatzi zuen. Huici espainiar sentitzen zen, baina ez zuen ulertzen zergatik ukatzen zioten Nafarroari Gaztelari ematen ziotena, Nafarroa “Espainia osatu zuten bost erreinu garrantzitsuetako bat” baitzen, bere ustez.

Liburua autokritika zakukada bat da, historiografia ofizialak ordura arte esandako topikoen kontra esaldi gogorrak eta irmoak bata bestearen atzetik datoz. Ederki nahastu zituen bazterrak. Nafarroako Gobernuak ez zion lana argitaratu nahi izan, eta hurrengo urteetan hainbat sari eta domina jaso bazituen ere, *En torno* tabua bilakatu zen. Esango genuke gaur egun ere hala dela zenbait sektoretan.


“Ezin da 1512ko gertakizun bat gaur egungo pentsaeraz juzkatu; baina orduan jada kondenatu egin zen. Nebrijak¹² dioenez, Isabelek bat egite ‘ondraduaz’ hitz egiten zuen. Beraz, ‘ongia eta gaizkia’ bereizten ziren. Baina XX. mendean hura justifikatzen jarraitu nahi izatea, nolabait, biolentzia defendatzea da. (...)”

Nafarroa Gaztelara gehitzeko akta ofizialean¹³, nafar ordezkariaren bat bilatzen saiatu naiz, behintzat beaumontarren bat, eta ez dago, ez al da arraroa? (...) Ezta beaumontar bakar bat ere ekitaldian. (...)”

Fernando eta Jeronimo Vichekoaren arteko gutun originalen artean ere bilatu nuen, eta hor ere ez nituen aurkitu. (...) Kontsideratzen badugu, Suarez irakasleak dioten moduan, Nafarroan sartzeko plataforma zirela, Burgoseko sala hartan ez egoteak esan nahiko luke eurak ere traumatizaturik zeudela. Eta posta-truke hain garrantzitsuan ez egoteak, esan nahi du ez zituztela oso kontuan hartzen konkistarako. Katolikoa soilik buldez eta bere ejertzitoaz zen fidatzen. Orduan, galdetzen dut, zertarako erabili zuen On Luis Beaumontekoa?¹⁴ Nafarrak banantzeko eta gerra elikatzeko bakarrik?

12- Elio Antonio de Nebrija idazle espainiarrak (1441-1522) *De Bello Navarrico* libri duo gramatika idatzi zuen Nafarroako konkista justifikatzeko helburuz, 1545ean publikatu zen.

13- 1515eko ekainaren 11n onartua Burgosen, Gaztelako Kondestablearen etxeko egongelan bildutako Gorteetan.



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

1515ean Nafarroa Gaztelara gehitu zen ofizialki, Gaztelako kondestablearen Burgoseko etxean egindako Gorteetan. Dokumentua Simancaseko artxiboan gordetzen da eta Espainiako Kultura Ministerioaren webgunean ikus daiteke. Goian 1521eko Noaingo borrokaldia gogoratzeko egindako eskultura.

Uste dut galdera ikurra kendu litekeela. (...)

Uste dut deskubritu dudala zergatik ez zen erreakzio handiagorik izan, eta jadanik esan dut: Nafarroa ehun urtez baino gehiagoz okupazio-ejertzito baten pean egon zen. (...)

Askok kostatzen zait hau onartzea. *La Camara de Comptos en la Edad moderna* liburua argitaratzen

dudanean ikusiko da zein punturaino dagoen Erreinu basterendua. Faktore positibo bat dago, gerra zibilik ez dela, baina beste bat negatiboa: nafar herriak emandakotik bizi den ejertzito baten okupazio iraunkorra. (...)

Honekin guztiaren. Nork sinetsi dezake Nafarroako ekonomia hobetu egin zela XVI. mendean?".

14- Leringo kondea eta Nafarroako kondestablea. Nafarroako konkistan parte hartu zuen eta 1512an Albako dukearekin sartu zen Irunean. Konkistak aurrera egin ahala, Beaumontarrek Fernando Katolikoari eskainitako babesaren epelagoa izan zen.

ALFREDO FLORISTÁN IMIZCOZ

«Nafarroakoa enpresa 'herrikoia' izan zen gaztelarrentzat»

Iruñean jaioa, Madrilgo Alcalako Unibertsitateko Aro Modernoko historia katedraduna da. Nafarroako konkistari loturiko makina bat lan argitaratu du azken 25 urteotan, batez ere konkistari buruzko interpretazio ezberdinez eta Nafarroaren Gaztelarako "gehitze prozesuaz". Besteak beste, Sociedad de Estudios Históricos de Navarra-ko kide da.

Nafarroako Gobernuak 1512ko konkistaren bosgarren mendeurrena gogoratzeko sorturiko batzorde zientifikoaren presidentea da Floristán Imizcoz. Nafarroako Gobernuak 2011n antolaturiko konkistari buruzko kongresuan defendatu zuen konkista inguruko noble gaztelarrek eginiko "enpresa" bat izan zela eta ez hainbeste Fernando Katolikoak aurreikusitako operazio bat. 2012ko otsaileko *Pregón* aldizkarian –*Diario de Navarra*-rekin batera saldua– teoria berdinean sakontzen du Floristán Imizcozek *Navarra en 1512: ¿Quién conquistó y quien fue conquistado?* izeneko artikuluan.

"1512ko uztaileko lehen inbasioan, soldadu profesionalek osatutako nukleo murriz batekin batera, gaztelar tituludun batzuk etorri ziren, euren seme eta zordunekin; baita inguruko hiribildu eta probintzietako miliziak ere. 1512ko azaroko Iru-

ñeko laguntzan¹⁵ eta 1521eko Noaingo borrokan ere berdin ikusten da: hurbileneko Gaztelaren mobilizazio azkarra. (...) Seguruenik, Nafarroakoa, enpresa 'herrikoia' izan zen haientzat, Portugalgo konkista (1580) mendebaldeko gaztelarrentzat izan zen bezalaxe. (...)

Honek iradokitzen digu elementu kualitatiboak kontuan hartu behar direla. Zeren-eta konkistatzaileek ez zuten gairitu soilik konkistatuak baino gehiago, indartsuagoak edo zorteagoak zirelako. (...) Birplanteatu beharko dira nafarren arrazoiak borrokarako –edo borrokarik ez egiteko–, eta horrek eramaten gaitu beaumontarrek eta agramontarrek izan zuten papera aztertzeraz. (...)

Oso errotuta dagoen arren, baztertu behar da Fernando Katolikoak konkista aurreikusi zuela dioen ideia: terrenoa preparamatu zuen, inbasioa erabaki, aukera aprobetxatu eta... bere zoriaz ikaratu egin omen zen. Hainbat testigantzen arabera, Gipuzkoa babesten zuen ejertzito ingelesa itsasoratu ze-

nean, okupazioa utzi eta atzera egitea pentsatu zuen, Frantziaren erreakzioaren beldur. Baina testigantza hauek, kapitain eta noble gaztelarren osotasuna kontrajartzen duten Katolikoaren segurtasun falta eta erabakitzeko gaitasunik ezaren aurrean".



Katalina erregina gerrara bidean irudikatzen duen miniatura ezaguna.

15- 1512ko azaroaren 24an, Joanes III.ak eta Pedro II.a mariskalak gidaturik, nafarrez, biarnotarrez, gaskoiez eta alemanez osaturiko gudarosteak Iruñea eraso zuen hiriburua berreskuratzeko asmoz. Baina Albako dukearen tropek eta beaumontarrek erasoari eutsi zioten.

MANEX GOIHENETXE (1942-2004)

«Hispanizazio planifikatu eta eraginkor baten pean iraun zuten erakundeek»

Manex Goihenetxek bere obra bukatu gabe zuela galdu zuen bizitza mendian. Ezterenzubini jaioa, 1969an lizentziatu zen Historian Okzitaniako Tolosako unibertsitate publikoan eta 1984an egin zen doktore Pauen. Bigarren hezkuntzako eta unibertsitateko irakasle izan zen. Baina hori bakarrik ez. Goihenetxe politikari izan zen —Enbata mugimenduaren eta EHAS alderdiaren sortzaileetako bat—, euskaltzain urgazle, UEUko zuzendari, Ikas elkarteko idazkari, Seaskako langile... Ezin litezke historiako bere ikerketak ibilbide hori gabe ulertu.

Jean Luis Davantek *Bidegileak* bildumarako osaturiko biografian dio, Goihenetxeren lehenengo historia lanak “panfletoak” izan zirela, zorroztasunez baino asmo onez eginak. 1970eko hamarkada zen, eta Frantziaren kolonizazioa salatzea zuen helburu. Gerora, iraganeko akatsetan eskarmentua harturik, historia dokumentatua eta kritikoa lantzeari ekin zion, abertzaletasuna modu horretan defendatu zuen, eta ezer baino lehen konturatu zen Euskal Herri anitzak izan direla, eta direla.

Euskal Herri osorako historia egin nahi izan zuen eta horren emaitza da *Histoire Générale du Pays Basque* bilduma, bost liburukiz osatua 1998 eta 2005 artean —azken liburukia bukatu gabe utzi zuen—, Elkar-en eskutik. Argitaletxe talde berak gaztelarazko bertsioa publikatu zuen 2005ean, euskarazkorik ez ordea. Bildumaren hirugarren liburukiak dakartza konkistari buruzkoak, bai Goi Nafarroari dagozkionak eta baita Nafarroa Behe-reari dagozkionak ere.

“Historialariek nabarmentzen dute konkistaren biharamunean Fernando Katolikoak kontu handia izan zuela usadioak, ohiturak eta baita Nafarroako Forua bera ere errespetatzen, hala nola bere erakunde nagusiak (Errege Kontseilua, Gorte Nagusia, Gorteak...), anxio hitza baztertuz. Baina politika hori posible izan zen Nafarroak babes militarrik ez zuelako, bere gazteluak desegin ondoren. Egia da erakunde nafarrak ez zirela desagertu, hauek indartuak izan zirela, baina hispanizazio planifikatu eta eraginkor baten pean, elite nafarrak monarkia espainolean eta bere inperioaren barruan kontrolatu eta integratzeraino. (...)”

XVI. mendeko bigarren erdialdetik aurrera, Goi eta Behe Nafarroaren arteko haustura ekarri zuten hainbat faktorek; batez ere nabarmentzen da Frantziak eta Espainiak aurrera eramandako finkotasun militarra, diplomatikoa eta lurraldeari zegokiona; politika hori Batasunaren Ediktuak (1620) eta Pirinioetako Tratatuak (1659)¹⁶ kotsakratu zuten. (...)

Hortik aurrera, Henrike IV.aren¹⁷, historiaren idazketa monarkia frantsesaren interesen zerbitzura eratorritako *navarrismo* baten esku geratu zen. Eta Goi Nafarroan Karlos I.aren eta Felipe II.aren ideologia inperialistak arrakasta izan zuen; konkistaren lehen urtetako heriotza, kartzela eta erbestetik iraun zuten gizartearen indar biziak, batasunaren aldeko dinamika gaztelarraren barruan sartu ziren. Europako lehen potentzia bihurturiko Espainian, Nafarroak erregeordea mantendu zuen, erregeordetza bilakatu zen, beste kolonia eta jabetza espainolen tankeran: ez zen erreinu bat, erregeordetza baizik”.

16- 1620ko Ediktuarekin Frantziako koroak Nafarroa Beherea eta Biarno bereganatu zituen. 1659ko Pirinioetako Tratatu Bidasoako Konpantzia urtean (Konferentzia edo Faisanes uhartea) sinatu zen —Frantziak Espainia garaitu zuen Dunasko borrokan—, eta Pirinioetako mugak finkatu ziren.

17- Henrike III.a Nafarroakoa (1553-1610), konkistaren urteetan 1521eko kontraerasoa antolatu zuen Henrike II.a Nafarroakoaren biloba zen. *Paris vaut bien une messe* esaldi ezagunarekin higanot izateari utzi ondoren, 1594an Frantziako errege bihurtu zen Henrike IV.a izenez

PEDRO ESARTE

«Monarkia inperialarentzat ez zen egon asimilatu gabeko nafarrik»

Ofizioz harakina eta afizioz historialaria da. Elizondoko alkate izan zen 1977an eta Baztango bailarako batzarkide ere bai. Bertoko mendien jabetza arakatzuz hurbildu zen historiara. Nafarroako konkistari loturiko makina bat liburu eta artikulua idatzi ditu, horietako askotan gogor egiten du Nafarroako Gobernuak landu izan duen ildo ofizialaren kontra. Nabarralde eta 1512-2012 Nafarroa Bizirik elkartearen bidez ezagutarazi ditu bere iritziak.

2001 urtean mugarri bat jarri zuen Pedro Esartek Nafarroako konkistaren historiografian. Pamiela argitaletxearen eskutik *Navarra, 1512-1530. Conquista, ocupación y sometimiento militar, civil y eclesiástico* izeneko liburuak eman zuen argitara. 900 orrialde eta 2.641 oin-ohar osagarri dituen lan mardula da. Boissonnade XIX. mendean bere kronika idatzi zuenetik, zaila da ikerlan sakonagorik aurkitzea gai horren inguruan.

Esartek ekarpen berezia egiten du *Navarra, 1512-1530*-rekin. Normalean historialarientzat bigarren mailako izan diren artxiboko dokumentuak ikertu ditu hogeitaz urtez, eta batez ere, notaritza-protokoloetatik edan du. Modu horretan, Nafarroako herritar soilen testigantzak eta iritziak jasotzea lortu du, konkista jasan zuten protagonistena alegia. Auzi, eskaera, salaketa, kontratu eta bestelako dokumentazioen bidez, liburuak erakusten du Nafarroa konkistatua eta menperatua izan zela, eta nafarren erresistentzia eta



Konkista eta errepresioa jasan zuten nafarrak ditu protagonista Esartek.

jasandako errepresioari tamaina hartzeko balio du.

2011n Pamielak jatorriko liburuaren 204 orrialdeko laburpen bat publikatu zuen, *Breve historia de la invasión de Navarra*, Aitor Pescador historialariak atondua. Pescadorren esanetan, 2001eko liburuak “urrezko zain bat” da, dakarren informazio mordoagatik eta, batez ere, “nafarrek ikusirik konkista, nafarrek sufritutakoa” kontatzen duelako. Segidako testua *Navarra 1512-1530* liburutik hartu da.

“Beaumontarren eta agramontarren arteko barne borrokak aitziakiatzat hartuz edo estatu mo-

dernoen osaketan zegoen egoera aipatuz, Nafarroak independentzia galdu izana zuritu nahi izatea, gertaera haiek desitxuratzen dituzten arrazoiak ematea da; mundua menderatu nahi izan zuen monarkia inperialak, baita bere tropek, zaleek eta kolaboratzaileek buruturiko desmasia, krimen eta espoliazioen aurrean erasotzaile zuzen gisa zuten erantzukizuna desegitea dute helburu. (...)

Nafarrak, inposatu zitzaizkien zamaren kontra matxinatuko zirenen errezelo eta susmoa mantendu zen. Tristeia da ikustea, Nafarroako erreinuko berezkoak zirenak, ez zituztela nafar gisa hartu obedientzia eta morrontza zin egin arte.

Monarkia inperialarentzat sekula ez zen existitu asimilatu gabeko nafarrik. Hori egiteko, ez zen nahi-koa izan leialtasuna eta obedientzia zin egitea, auto-erruduntasuna eta barkamena modu indibidualean eskatzea ere exijitu zitzaizen”.

ÁLVARO ADOT

«Ezin ditut onartu Nafarroa banatuta zegoela dioten teoria faltsuak»

Nafarroako Unibertsitatean historian lizentziatu eta Euskal Herriko Unibertsitatean doktore egin zen. Azkeneko hamabost urteetan hainbat ikerketa eta proiektutan parte hartu du eta produkzio bibliografiko oparoa izan du ibilbide labur horretan. Memoria historikoa landu izan du, baita artxibistikarekin zerikusia duten lanak ere. Artxiboekiko gertutasuna eta lehen eskuko iturriak erabiltzea izan dira bere lanen oinarria, eta jardun horren ondorioz, Foix-Albret dinastiaz espezialista nagusi bilakatu da.

2005ean *Juan de Albret y Catalina de Foix o la defensa del Estado navarro (1483-1517)* lana publikatu zuen Pamielarekin. Bertan azaltzen du albretrarrentzat Nafarroako erreinuak izan zuen garrantzia. Álvaro Adoten esanetan, Joanes III.ak eta Katalina I.ak bere beste lurraldeak arriskuan jarri zituzten Nafarroako erreinuaren independentzia mantentzearen. Era berean, errege horien agintaldian Nafarroako egoera soziala normalizatua zegoela defendatzen du, Modernitaterako bidea hasia zuela jadanik. Nafarroa erreinu klabea izan zela demostratzeko, erregeek egindako egonaldia eta ibilbideak biltzen ditu liburuan.

“Batzuei hala irudituko zaien arren, ez da gauza jakina esatea Joanes III.a eta Katalina I.a Nafarroakoak sekula ez zutela onartu euren erregealdian beren ondareko lurralderik galtzea: ez Nafarroa, ez Biarnoa, ezta Foix-Biarnoa Etxeko gainerako lurralderik ere. (...)”

Historialari gisa, derrigortuta nago esatera ez na torrela bat historiografia espainiar tradizionalak mendeetan zehar mantendu dituen teoriekin, zeinetan Jo-



INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

Álvaro Adotek defendatzen du Nafarroa Modernitatean sartzen ari zela Joanes III.a eta Katalina I.aren erreinaldian.

anes III.ak eta Katalina I.ak Foix-Biarnoa Etxeko lurraldeekiko maitasuna izango luketen, eta aldiz, Nafarroarekiko interes eskasa. Ezin ditut onartu, ezta ere, konkista eta ondorengo anexioa justifikatu nahi duten teoria faltsuak, esanez Nafarroako gizartearen zegoen banaketa sakonaren ondorio izan zela, erreinua liskar egoera iraunkorrean zegoelako. (...)

Datu ugari (horietako batzuk ezezagunak liburu hau argitaratu arte) frogatzen dute Nafarroa Joanes Albretekoaren eta Katalina Foixekoaren aktibitate politikoaren erdigune izan zela eta euren lurralde ondarearen defentsarako pieza klabea. (...) Nafar gizartearen barruko balizko banaketa sakon horretaz, esan dezakegu, behintzat 1507tik aurrera¹⁸, banaketa hori Gaztela eta Aragoiko koroetan zegoena baino txikiagoa zela”.

18- Urte horretan Luis Beaumontekoaren errebolta bat zapaldu zuten erregeek eta beaumontarren burua erbesteratu egin zuten. Hurrengo urtean hil zen Aragoan.

MERCEDES GALÁN LORDA

«Fernando Katolikoak nafar pertsonalitatea errespetatu zuen»

Iruñean jaioa, Nafarroako Unibertsitatean zuzenbidean doktore egin zen. Nafarroako foruen eta zuzenbidearen inguruan landu izan ditu bere ikerketak. Sociedad de Estudios Históricos de Navarrako lehendakaria da 2003az geroztik. 2009an, Nafarroako Gobernuak Abokatuen Kolegioaren laguntzarekin antolatuta, *El Derecho de Navarra* izeneko erakusketa zabaldu zen errege jauregia izandakoan, egun Nafarroako Artxibo Nagusia. Mercedes Galán izan zen erakusketaren komisarioa eta berak idatzi zuen izen bereko katalogoa, 1.000 ale inguruko tirada izan zuena. Galánek, bertan, Nafarroako izaera foralaren inguruan sakontzen du eta konkistaz dio “Fernando Katolikoak nafar pertsonalitatea errespetatuz gobernatu” zuela; honakoa ere baieztatzen du: “Garai haietako egoerari jarri behar da: erregeek, lurralde bat konkistatzen zutenean, hura nahi bezala erabil zezaketela uste zuten”.

Mercedes Galánen lan horrek zerresan handia eman zuen. Esaterako, Nabarralde elkarteko hainbat kidek kritika zorrotza egin zioten; Pedro Esarte historialariaren esanetan: “Berriz ere, gaur egun, XXI. mendean, inbasio horren ondorioak justifikatzen dira modu barregarrian”. UPN alderdiak 2012an dekalogo bat helarazi zien bere militanteei konkistaren bosgarren mendeurrenaz eztabaidatzeko hainbat irizpide emanez, dekalogo horretan Galánen *El Derecho de Navarra* liburua irakurtzea aholkatzen die.

Pregón aldizkariaren otsaileko zenbaki berezian Galánek honako artikulua idatzi zuen: *Justificaciones jurídicas en torno a la conquista de Navarra*. Artikuluan, 1512ko konkistaren inguruko bere tesien mamia azaltzen du. Segidako pasarteak artikuluhorretatik itzuliak dira:

“Zein litzateke, orduan, balizko justifikazio juridikoa?”

Konkistarako, ez dago. *Doctor Navarrus*-ek berak, Martin Azpilikueta¹⁹, ‘injustua’ zela esan zuen, nahiz eta erreinua berrezartzea okerragoa izango litzatekeela uste zuen, kalte handiagoak eragingo zituelako.

[Gaztelak Nafarroa] atxikituta mantentzeko, argudio bakarra litzateke herritarren *menpekotasun libre eta borondatezkoa*. Nafarroako Gorteen 1513an fideltasuna zin egin izana²⁰ baino –hauek ordezkatzeko zutena oso eztabaidagarria baitzen–, herritarren zati bat

tek egoera onartu zuela, eta ez zela matxinatu. Gainera, errege Katolikoaren eskutik onurak eta barkamena lortu zituzten. (...)

Azken batean, nafarren onarpen jarraituak, *menpekotasun libre eta borondatezkoa* izenarekin ulerturik, eta preskripzio eskuratzailak²¹, konkista injustua finkatu zuten. Baina batez ere, ezinbesteko izan ziren nafar paktismo tradizionala, eta Nafarroako erreinu izaerarekiko, erakundeekiko eta zuzenbidearekiko errespetua”.



**Cantelli geografoaren
1690eko Nafarroako
erreinuaren mapa.**

19- Eruditua baztandarra (1492-1586), teologoa, ekonomialaria eta legelaria zen. Hainbat unibertsitatetan ikasi eta irakatsi zuen, besteak beste Portugalgo Coimbran. Espainiako erregeen eta Erromako Aita Santuen aholkulari ere izan zen zahartzaroan.

20- 1513ko martxoaren 23an Iruñeko katedralean leialtasuna zin egin zioten Nafarroako gorteen Fernando Katolikoari; bertan, beaumontarren ordezkaritza baino ez zegoen.

21- Jatorrizko jabea ez izan arren, denboraren poderioz ondare baten jabe bihurtzea legearen aurrean. Usukapioa ere deitzen zaio.

PEIO MONTEANO

«Enperadoreak 1521eko lezioa ikasi zuen»

Soziologoa eta historian doktorea Nafarroako Unibertsitate Publikotik, Nafarroako Artxibo Nagusiko goi teknikaria da Monteano. Iruñean jaio eta Atarrabian bizi da, 1999an bertoko alkate izan zen EA-Atarrabia taldea ordezkatzuz. Hamar urte daramatza bete-betean Nafarroako konkista iker-tzen eta lan esanguratsuen *La guerra de Navarra (1512-1529). Crónica de la conquista española* du, 2010ean Pamielak argitaratua.

Nafarroako konkistari buruzko azken urtee-tako berrikusketa lan sakonena dela esan gene-zake. Kronista eta historialari klasikoen ifrentzua gainetik kendu eta zuzeneko iturriak ditu oinarri, batez ere Nafarroako Artxibo Nagusikoak eta Si-mancaseko artxibokoak. Monteanoren liburuan historia aseptikoa arnasten da, gertakizun kon-kretuen bidez klabeak ematen dizkio irakurleari, berak atera ditzan ondorioak.

Liburuak iradokitzen duenez, konkistak gora-behera asko izan zituen. Data klabea 1521ekoa izan zen –Noaingo bataila–, hortik aurrera “bigarren konkista” bat hasi zen, gogorragoa, kontrol politiko zorrotzagoarekin, beste protagonista batzuekin... Bestalde, Espainiako ejertzitoak inbaditu zuen Na-farroa, ez Gaztelakoak edo Aragoakoak; hau da, Nafarroak ez zuen Espainiaren sorreran parte hartu, baizik eta bertara txertatu zuten “inposaketaren eta bortxaren bidez”. Aitzitik, Nafarroan oraindik ez zegoen identitate nazional sendorik, leinuenganako fidelitasunak agintzen zuen batez ere.

“Momentua ezin egokiagoa zen asanbladak²² ze-haztu zezan zein ziren nafarrak eta zein ez: aita-ama nafarrak zituzten eta berton bizi ziren haiek. Segi-dako egunetan, diputatuek Koroak azken hilabe-

teetan egindako laidoak (foruak urratzea) aurkeztu zituzten. Konpondu ez ziren laidoen artean, urteen poderioz errepikakor bihurtu ziren batzuk zeuden: epaimahai nafarretan epaile atzerritarrik ez ego-tea, ejertzitoek egindako kalteak indemnizatzea, tropek egindako gehiegikeriak amaitu zitezela, eta abar. Eta harrigarriro, sakontasun politiko handiagoa zuen eskaera bat: Gorteen exijitu zuten Nafarroara itzul zitezela antzina bereak izan ziren lurraldeak, ‘bereziki –zioten– Ebrotik Nafarroa aldera zeuden to-kiak’. Sonsieraz ari al ziren? Edo Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia ere aldarrikatzen ari ziren? (...)

1521eko maiatzeko matxinada arte gertatuta-koaren lezioa ikasirik, enperadoreak bere boterea handitu nahi zuen. Pentsatzen zuen Erreinua man-tenduko bazen, gobernu on bat eta justizia zuzen bat egon behar zutela. Horretarako, Errege Kon-tseiluan zuen eragina handitu behar zuen, eta era-kunde hori alderdien artean zeuden borroketatik atera. Antzemanik, nafarrek, lehenik eta behin eu-ren foruak errespetatzea zin eginaraziko zutela –fo-ruek ez zuten uzten nafarra ez zen beste epailerik egoterik–, erregeordeari argibideak eman zizkion hori eragozteko, askatasun gehiago nahi baitzuen bere interesekin bat zetorrena erabakitzeke. (...)

1521eko udazkenean, Nafarroako iparraldean mini-estatu legitimista bat sortzearekin batera, errepresioa are gogorragoa izan zen. Amaiur be-rreskuratzeak baino ez zuen animatu enperado-re barkamen orokorra aldarrikatzera, nahiz eta, le-gitimista nabarmenenak salbuetsi zituzten. Aukeratu berria izan zen Aita Santuak, Erromara joan aurretik, bere apopilo izandakoari²³ amnistia eskatu zion Erreinutik erbesteratuta zeuden mila erdi agramontarrentzat, ez baitzuten frantsesak ekartzeko konspiratu. Gainerakoak, prelatuaren ustez, zigortu egin behar ziren”.

22- 1513ko martxoko Nafarroako Gorteen ari da.

23- Adrian VI.a Utrechtekoak bere ardurapean izan zuen Karlos printzea hamar urtez.

Independentea Aurrerakoia Sakona
 Burujabea Euskararekin konprometitua
 Zorrotza eta kritikoa Irakurle fidelez osatutakoa
 Izen handiko sinaduren topagune Multimedia izaerakoa ...



Euskal Herriko eta munduko
 aktualitatearen erakusle

Milaka irakurle dira
 izaera honekin
 bat egiten dutenak.

Ezazu gaitzazu. Jaso ezazu Euskal
 Herriko astekaria
 hilabetez doan!
harpide@argia.com

ARGIAREN
urtebeteko
HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian
138€

Ipar Euskal Herrian
168€



argia

© 943 37 15 45

Independentzia astero ikusten da